

Hezkuntza Sailak EAEko irakasleen akordioan bete ez dituen atalak judizializatuko ditu LABek

EAEko hezkuntza publikoko irakasleen akordioa erdietsi eta urtebetera, sailak bete gabeko neurriak aplikatzeko borondaterik gabe jarraitzen du. Datorren ikasturtean berdin jarraituz gero, ildo juridikoa ez ezik, ildo mobilizatzailea ere berraktibatuko du LABek.

Urtebete da EAEko hezkuntza publikoko irakasleen akordio arautzailea eta plantillak esleitzeko irizpideen akordioa sinatu zirenetik. Akordio horiek aurreko ikasturtean egindako hamaika mobilizaziori eta grebei esker lortu ziren, eta, hezkuntza publikoan aritzen diren irakasleen lan baldintzak nabarmen hobetzeaz gain, baliabide gehiago jaso dituzte ikastetxeek ikasle talde gutxiago izan arren. Hala ere, ikastetxeek are baliabide gehiago jasoko lituzkete Hezkuntza Sailak adostutakoa osotasunean bete izan balu. Zentzu horretan, sailak erakutsi duen aurreikuspen eta borondate falta salatu nahi ditu LABek, konpromisoak ez betetzearen ondorioz ikastetxeak eta langileak izan direlako kaltetuak.

Akordioa sinatu eta urtebete igaro den honetan, eta Hezkuntza Sailaren borondate faltaren aurrean, akordioa urratzen duten atalak judizializatzeko erabakia hartu du LABek, eta, ildo horretan, ikasturtea amaitu aurretik mobilizaziora joko duela adierazi nahi du. Datorren ikasturtean ez betetzeek jarraituz gero, ildo mobilizatzailea berraktibatuko du sindikatuak. Era berean, LABek dei egin die gainontzeko sindikatu sinatzaileei elkarlanean aritzeko eta akordioa irmo defendatzeko.

Bere osotasunean oraindik aplikatu ez bada ere, sinatutako akordioak lan baldintzen arloan hobekuntza nabarmenak jasotzen ditu. Plantillaren gazteberritzeari dagokionez, urteko modalitatean irakastorduen murrizketa erretiroa hartu arte luzatzea ekarri du; modalitate metatuan berriz, langileak 18 hilabete lehenago erretiroa aurreratzeko aukera izango du.

Ordezko langileen eremuan ere eragin handia izan du akordioak. Besteak beste, karreradun eta bitarteko funtzionarioen baldintzak parekatzea, urte sabatiko hartzeko aukera izatea eta ordezkoen udako kobraketa berreskuratzea. Lizentzia eta baimenen arloan, berriz, gurasotasun baimenean 2 aste gehigarri izatea eta edoskitzerako egunak gehitzea dira aurrerapauso nagusiak.

LABek baliabideen beharra lehen lerroa ekarri zuen iazko ikasturteko negoziazioan, sindikatuarentzat estrategikoak izateaz gain, hezkuntza kalitatea hobetzeko behar-beharrezkoak direlako. Zentzu horretan, 2025-2026 ikasturtean ikasle talde gutxiago egon arren, aurreko ikasturtean baino irakasle gehiago izan direla azpimarratu du sindikatuak. Honakoak izan dira eremu horretako lorpenak: aholkulari eta orientatzaile kredituak handitzea; ikasle etorri berriak euskara eta euskal kulturaren murgiltzeko HIPI eta EUSLE programetarako ordu, kreditu eta ratio berriak ezartzea; eta hizkuntza proiektuetarako koordinatzaileen figura ezartzea.

EAEko funtzio publikoan azken 15 urtetan lehen aldiz soldata bertan adostea lortu zen, eta ikasturte honetan erosahalmena berreskuratzeke neurriak gauzatu dira; hala nola, akordioan jasotako %7ko igoeraren lehenengo jasotzea (%2); berrikuntza arduradunek (BeA), aholkulariek eta orientatzaileek kargu akademikoak jasotzea eta jardunaldi murriztuan dauden irakasleek kargu akademikoak osorik jasotzea.

Azkenik, enplegua egonkortzeari, lan osasunari, euskarari eta berdintasunari dagozkion neurriak ere adostu ziren. Enplegua egonkortzeari lotuta, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoak hezkuntzan mantentzea, oposaketak hiru urteko zikloetan egitea, lanpostu guztiek C1 hizkuntza eskakizuna izatea eta behin-behinekotasun tasa %5etik behera kokatzea. Lan osasunari dagokionez, osasun azterketak 3 urtean behin egitea eta lanpostua egokitzeko eta lanpostuz aldatzeko protokoloak ezartzea. Euskara eta berdintasunaren eremuan, ikasleak hizkuntzan eta metodologian gaitzea bultzatzea, berdintasunerako jarraipen batzordea sortzea eta LGTBI pertsonen eskubideen aldeko plana jasotzea adostu ziren akordio berrian.

Baliabideak, blokeatuta

Akordioaren irismena, ordea, ez da osotasunean gauzatu, Hezkuntza Sailak ez dituelako adostutako neurri guztiak aplikatu. Ondorioz, aurrez aipatutako baliabideez gain, sailak ikastetxeetara bideratu behar zituen baliabide garrantzitsu batzuk blokeatu ditu, eta, hala, langileen lan baldintzetan zein hezkuntza kalitatean aurrerapausu gehiago ematea oztopatu du. Hori guztia Hezkuntza Sailaren aurreikuspen eta borondate faltari egotzi dio LABek, zeinak irakasle eta zuzendaritzen artean haserrea eta ezinegona sortu dituen.

Sailaren ez betetzeak arlo desberdinetan kokatu ditu LABek. Akordioak jasotzen duen lorpen esanguratsuenetako bat irakasleen lan zama arintzea eragin behar duen irakastorduen jaitsiera izan zen. Haur eta Lehen Hezkuntzan, 23 ordu lektiboetatik 21 ordura murriztea jasotzen du akordio arautzaile berriak, 2025-26 eta 2026-27 ikasturteetan hurrenez hurren; hala ere, 2025-26 ikasturtean Hezkuntza Sailak ez du baliabide nahikoa jarri, eta 2026-27rako aurreikuspenetan bigarren irakastordua jaisteko baliabideak bidaliko ez dituen zantzuak ditu LABek.

Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan, aldiz, gehienez 18 irakastordu izan ordez 17 izatea jasotzen du hitzarmenak. Kasu honetan ere, ikastetxeek ordu jaitsiera hori bermatzeko nahikoa baliabide ez dute jaso 2025-26 ikasturtean. Zentzu horretan, sailak aldebakarrez argitaratutako HEZI+ programaren ebazpenak akordioa urratzen duela salatu du LABek, zuzeneko dedikazio orduak ordu osagarri moduan txertatzea jasotzen duelako. Bestalde, Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan berrikuntza proiektuengatik irakaskuntza ordu baten murrizketaren berri ez du eman sailak 2025-26 ikasturtean.

LABek salatu du, sailaren arduragabekeria medio, aipatutako lorpenak guztiz gauzatu gabe geratu direla 2025-26 ikasturtean, eta ikusteke dagoela 2026-27 ikasturtean zer gertatuko den; hori dela eta, ikastetxeetako zuzendaritzek Hezkuntza Sailak sortutako zuloa estaltzeko bideak desberdinak bilatu behar izan dituzte. sindikatuak adierazi duenez. Batzuek ikastetxeko beste proiektuetako orduak baliatu behar izan dituzte irakastordu bat jaisteko (hezkuntza kalitatearen kaltetan); besteek lanpostuak 18 irakastordutan itxi behar izan dituzte, akordioak jasotakotik gora.

2026-27 ikasturteari begira ere, dagoeneko hainbat dira LAB sindikatuak aurreikusten dituen ez betetzeak, behin behineko Lanpostu Zerrenda aintzat hartuz gero. Batetik, akordioak Lehen Hezkuntzako ratioak 23tik 22ra jaitea jasotzen badu ere, sailak 22ko ratioa Lehen Hezkuntzako 1. mailan soilik aplikatu du. Bestetik, Entzumen eta Hizkuntza Irakasleak (EHI) ikastetxeetan lehenengoz egonkorrak izango dira sinatutako akordioari esker; hala ere, adostutakoaren kontra, bestelako irizpide murriztaileak aplikatu nahi ditu sailak. Azkenik, Ongizate eta babeserako koordinatzaileentzat ikastetxeek 2026-27 ikasturterako baliabideak jaso behar bazituzten ere, Hezkuntza Sailak ez du baliabiderik kargatu behin-behineko Lanpostu Zerrendan.

LABek 2025eko ekainean bertan salatu zuen, akordioa sinatu eta hilabetera, argi geratu zela Hezkuntza Sailak ez zuela akordioa osotasunean betetzeko borondaterik, 2025-26 ikasturterako aurreikusitako baliabide batzuk esleitu ez zituelako. Ekainean bertan eta abenduan mobilizazioak egin zituen LABek ikastetxeetan, ikasturtean zehar Hezkuntza Sailari akordioa osotasunean betetzeko egindako bidearen baitan. LAB sindikatuaren ustez, ez betetze horiek bide desberdinetatik bideratzen saiatu arren, sailak entzungor egin dio behin eta berriro bete gabeko neurriak aplikatzeari.

Akordioa sinatu eta urtebete igaro den honetan, eta Hezkuntza Sailaren borondate faltaren aurrean, akordioa urratzen duten atalak judizializatzeko erabakia hartu du LABek, eta, ildo horretan, ikasturtea amaitu aurretik mobilizaziora joko duela adierazi nahi du. Datorren ikasturtean ez betetzeek jarraituz gero, ildo mobilizatzailea berraktibatuko du sindikatuak. Era berean, LABek dei egin die gainontzeko sindikatu sinatzaileei elkarlanean aritzeko eta akordioa irmo defendatzeko.